

# SUIZIDIOA

## Suizidioa munduan barrena

**Egilea: Amaia Agirre Miguélez**

**Arloa: Soziologia**

**Webgunea: [www.gaiak.net](http://www.gaiak.net)**

**2012/12/23**

Suizidioari buruzko interes soziologikoa diziplinaren jaiotzarekin batera gertatu zela esan dezakegu. Izan ere, unibertsitateko lehenengo Soziologia departamentuko sortzaile izandako Emile Durkheimek gaia landu zuen bere lan ezagunenetakoan. *Le Suicide* XIX. mendearen amaieran argitaratu zen. Bertan, egileak bere buruaz beste egiteko moduen tipologia osatu zuen: suizidioa berekoaia, anomikoa, altruista edo fatalista izan zitekeen. Eredu horiez gain, eta beste ondorio batzuen artean, suizidioan herrialdeka desberdintasun nabarmenak zeudela ondorioztatu zuen. Esaterako, suizidioak herrialde katolikoetan protestanteetan baino gutxiago gertatzen zirela adierazi zuen. Edonola ere, aldi berean, datuen fidagarritasuna zalantzan jarri zuen, herrialde katolikoetan beti egon baita zuhurtasun handiagoa datu horiek kaleratzerako garaian.

Gaur egun, oraindik ere desberdintasunak nabarmenak dira herrialdez herrialde; eta, horrekin loturik, bere buruaz beste egiteak duen kontsiderazio soziala oso aldakorra da kulturaren arabera. Erlijio monoteistak nagusi diren herrialdeetan, suizidioaren oso modu negatiboan ulertu ohi da, tabu gisa, eta, suizidio gutxiago egoteaz gain, geroago hasi ziren horren inguruko estatistikak argitaratzen. Bestetik, Asiako herrialde batzuetan, *ohorezko suizidioak* existitzen dira: egoera latz batetik irteteko modua dira, eta onarpen sozial osoa dute. Besteak beste, Japonia da adibiderik aipagarriena.

1950eko hamarkadaz geroztik, suizidioen mundu mailako datuak jasotzeko arduraduna Osasunaren Mundu Erakundea da. Lehen aipatu bezala, suizidioaren kontsiderazio soziala aldakorra denez, suizidioari buruzko datuak argitaratzeko unean ere desberdintasun handiak daude herrialdetik herrialdera; eta ez dira gutxi datuak faltsutu nahi dituzten herrialdeak. Halaber, suizidioen estatistikak jasotzen ez dituzten herrialdeak ere badira, Afrikan, batik bat. Hala ere, orokorrean behatuta, suizidio tasa altuenak Europako Ekialdekoak dira (Lituania, Bielorrusia...), eta txikiak, aldiz, herrialde musulmanetakoak (Egipto, Kuwait...). Paradoxikoki, zoriontasun tasa altuenak dituzten herrialdeetan, munduko suizidio tasa handienetakoak ere badituzte; eta ongizate materiala erlatiboki altua dutenen artean ere altuak dira. Adibidez, munduan suizidio tasa handienak dituzten hamar herrialdeen artean, erdia Europar Batasunekoak dira (Finlandia, Letonia, Lituania, Hungaria eta Eslovenia).

Beste desberdintasun nabarmena gizonen eta emakumeen arteko desorekan datza. Gutxi gorabehera, salbuespenak salbuespen, bere buruaz beste egiten duen emakume bakoitzagatik hiru gizonek egiten dute, nahiz eta suizidio saiakeretan dagoen aldea hain nabarmena ez izan. Azken datu horren arrazoia nork bere buruaz beste egiteko aukeratutako tresnak izan daitezke; izan ere, gizonezkoen kasuan bortitzagoak dira

(su armak, urkatzea...) emakumeenak baino (botiken gaindosia...). Salbuespenen artean, Txina eta Bangladesh ditugu, nahiz eta herrialde horietan estatistika argirik ez dagoen, eta estimazioen araberrako datuak erabili behar diren. Edonola ere, herrialde horietan emakumeen suizidio tasa gizonezkoena baino altuagoa da.

Azkenik, herrialde batean, urteetan zehar, gertatzen den suizidioen zenbatekoa nahiko modu iraunkorrean mantentzen dela kontuan hartu behar da. Hala ere, tasa horiek igoarazten dituzten gertakari zehatzak ere badira; adibidez, gerrak eta krisi ekonomikoak. Nahiz eta egungo krisi ekonomikoari buruzko datu fidagarriak oraindik ez dagoen (urte batzuk behar dira aldaerak tentuz aztertzeko), ikerketa batzuek diotenez, langabezia tasa eta suizidioak proportzionalki igotzen dira. Esaterako, Grezian eta Irlandan hori gertatu dela dirudi, eta Espainiako estatuan hori bera agitzeko arriskua badagoela ohartarazi du Osasun Publikoaren Defentsaren Elkartearen Federazioak.

## ZOOM IN

- Sobietar Batasunaren suntsitzearen ostean, Europako Ekialdeko herrialde askotan, gizonen bizi itzaropenak modu nabarmenean egin zuen behera. Datu horretan, beste batzuen artean, suizidioen gorakadak eragin handia izan zuen.
- Japonian, nork bere buruaz beste egiteko errituala *harakiri* izenaz ezagutzen da. Tradizioaren arabera, samuraiek ohorez beren bizitzarekin bukatzeko egiten zuten errituala zen, eta horretarako beraien daga erabiltzen zuten. Japoniako beste suizidio mota famatu bat *kamikazearena* da, Bigarren Mundu Gerran zehar sortutakoa. Armada Inperialaren hegazkin militarretako pilotuek beren buruaz beste egiten zuten, gidatzen zuten lehegailuz betetako hegazkinak gerraontzi iparramerikarren aurka leherrarazten. Beste suizidio erritual bat Txinako eskualde batzuetan egiten zen. Nobleen artean gertatzen zen suizidio mota hori, eta gatz kantitate handiak jaten zituzten beren buruaz beste egiteko. Garai hartan, gatzak zuen prezio altua zela eta, ohorez hiltzeko modutzat hartzen zen.
- Leku batzuk ospetsu egin dira bertan bere buruaz beste jende askok egiten baitu. Ezagunen artean, San Frantziskoko Golden Gate zubia da. Bertan, bi astean behin, batez beste, suizidio bat gertatzen da; eta suizidioak ekiditeko asmoarekin, autoritateek plaka bat jarri dute (eta telefono zenbaki bat!) honako testu honekin: “Itzaropena badago, egin dei bat. Zubi honetatik salto egitearen ondorioak tragikoak dira”.